

opusdei.org

Philipe Jourdan, Estoniako Gotzain berria

Estonian, Euskal Herriak nekez
sinets daitekeen liluramendua
sortzen du; iritsi nintzenean
euskararekiko jakin-min handia
aurkitu nuen

2005 Eka 2

**Adieraziko al diguzu, labur, zertan
datza duela gutxi jaso duzun
kargua?**

Martxoaren 23an Joan Paulo II.ak
Estoniako Administratzaile

Apostolikoa izendatu ninduen,
Gotzain mailara jasoz. Estoniak ez da
oraindik elizbarrutia, aurreko
egitura bat baizik: administrazio
apostolikoa, alegia. 1942az geroztik
Estonian bizi den lehenengo gotzaina
naiz, eta erreforma luteranoaz
geroztiko bigarrena.

**Zenbat katoliko dago Estonian?
Aspaldian izan al zen
ebanjelizatua? Ba al dago santu
estoniarrik?**

Estonian katolizismoa, mendetan,
debekatua eta erasoia izan zen. Eliza
Katolikoa bakarrik XX. mendearen
hasieratik izan zuen aukera berriro
abian jartzeko. Hori dela eta,
komunitate katolikoa txikia da,
finlandiarraren antzekoa, 6.000 kide
ingurukoa. Elkartearen erdiak
Bielorrusian eta Lituanian du
jatorria; besteak estoniarrek dira,
azkeneko 30 urteetan kristautuak,
hain zuzen. Eliza Katolikoak bere

tamainaz gainera sona du herrian, Joan Paulo II.aren heriotzaren eta Benedikto XVI.aren hautaketaren gertakizunetan ikusteko aukera izan zenez. Oraindik ez dago santu estoniarrik, baina abian da nire aurretiko artzapezpikua, Eduard Profittlich – 1942an sobietarren zelaian martiri hil zena -, dohatsu izendatzeko prozesua.

Ezaguna al da Opus Dei Estonian? Kontatuko al diguzu horri buruzko datu edo pasadizo xelebreren bat?

Opus Deiko zenbait kide 90etako hasieratik hasi ziren Estoniara bidaiak egiten. 1993an, D. Alvaro del Portillo Tallinnen izan zen egun bat. Lehenago Sobiet Batasuna osatzen zuten herrietatik Estonia izan zen, Opus Deiko orduko Prelatuak ezagutzeko aukera izan zuen bakarra. Eginkizun egonkorra Tallinnen 1996an hasi zen eta gaur egun bi zentro daude. Batxilerrentzat

bi klub daude. San Josemaria
Escrivaren zenbait liburu
estoniarrera itzuli eta argitaratu
dira. Heziketa jarduerak estoniar eta
errusiar hizkuntzetan ematen dira,
horiexek baitira hemen gehien hitz
egiten direnak. Jarduera hauetan,
hala katolikoak nola luteranoak,
ortodoxoak, baptistak eta inongo
elizakoak edo fede kristaukoak ez
direnak, sobiet aldiaren ondoren.
Gertatu zait, katolizismotik “gertu”
dauden artzain luteranoentzako gogo
jardunaldia ematea, eta bertan
erabiliko San Josemariaren Arrosario
Santua eta Via Crucis liburuak
hainbeste gustatu izana, gero bere
zeremonietan erabiltzen hasiak
direla.

**Entzuna dut jatorri edo zenbait
senide euskaldunak dituzula.**

Baiona eta Pau arteko herri txiki
batekoa naiz. Akizen jaio nintzen,
baina Euskal Herriak Landekin duen

mugan dagoen herri batekoa naiz. Nire erro euskaldunak, egiazkoak badira ere, ez dira handiak. Nire erro gaskoiak garrantziagoak dira. Estonian, Euskal Herrikoak nekez sinets daitekeen liluramendua sortzen du, guk osatzen ditugun herri hungariar-finlandiarren parekoa baita Hego European.

Opus Dei Parisen ezagutu nuen, eta Bilbon dagoen Bidealde Ikastetxe Nagusian, udetan izan naiz. Badut beste anaia bat Opus Dein, Pierre; maiatzaren 21ean Prelatuak apaiztu egingo du.

Ba al dakizu zer edo zer euskaraz oraindik?

Askorik ez dakit, baina Estoniara iritsi nintzenean euskararekiko jakin-min handia aurkitu nuen. Finlandiarrak eta hungariarrak bezala, estoniarra herri hungariar-finlandiarra da. Euskal Herriak, Europako beste aldean egonik,

antzinateko ilunpetan galtzen diren erroak ditu, eta horregatik jakin-mina sortzen die. Behin, Estoniako barruko herri batera nindoala, herri hartako artzain luteranoarekin egin nuen topo, gizon edadekoa. Nondik nentorren esan orduko eskuak zerurantz jaso eta garrasi egin zuen: “Halako batean izan zait emana, artean bizirik nagoela, euskaldun bat ezagutzea!”. Gero, bere ohorezko gonbidatuen liburuan eskaintza bat idatz nezala eskatu zidan. Asko kostata ere, azkenean jarri nizkion hiru hitz euskaraz... eta pozik asko gelditu zen!

.....